

OHARRA-KORONABIRUSA
Kutsatze arriskuari aurre egiteko, neurri eta gomendio berriak (14:00)

Covid-19 birusaren kutsatze arriskua murrizteko iragarritako neurriak eta egindako gomendioak erdigunean, moldatu egingo da hondakin ontziak aldatzeko zerbitzua. Gaurtik aurrera, telefonoz emango da zerbitzua -orduantxe jakinaraziko dira osteko urratsak-. Bestetik, itxi egin dira herriko garbigunea eta eskualdeetako nekazal bulegoak. Gaur-gaurkoz, honako telefono zenbaki hauetara deituz egin daitezke azken horri dagozkion kontsultak edo tramiteak:

- Basozaintza gaiak: 943 112 075.
- Nekazaritza gaiak: 943 112 171 / 660 656 128.
- Abereei lotutako gaiak: 943 113 703 / 943 112 051 / 943 112 168.

Ostera, moldatu egin da Herribus zerbitzua. Zehatz esanda, ondorengo da zerbitzuaren ordutegi berria -bihartik aurrera egongo da martxan-:

Astelehenetik ostiralera (lan egunetan)	Larunbata (lan egunetan)
7:30 A linea	9:00 B linea
8:00 B linea	9:30 A linea
8:30 C linea	10:00 B linea
9:00 B linea	10:30 C linea
13:00 B linea	11:00 B linea
13:30 A linea	11:30 A linea
14:00 B linea	
17:00 B linea	
17:30 A linea	
18:00 B linea	
18:30 C linea	

Gainerakoan, zapatuan, boluntario sarea eratzeari ekin zion udalak, herritarren zaintzarako, beharrezko gauzak erosi eta etxera eramateko, desplazamenduetan laguntzeko edota sor daitezkeen bestelako beharrei erantzuteko. Oso harrera ona izan du egitasmoak: dagoeneko ehun herritar baino gehiagok eman dute izena. Hala, udalak biziki eskertu gura die herritarrei elkar zaintzaren bidean izaten ari diren jarrerara eta ekinbidea. Zehatz esanda, gaur hasi da izena eman dutenekin harremanetan jartzen.

Modu berean, udalak gogora ekarri gura ditu boluntario sareko kide izan gura dutenendako, boluntarioendako zein laguntza beharrean daudenendako, izen-emate bideak: 688 886 519 telefono zenbakira deitzea (9:00-14:00 artean) edo saretuz@onati.eus e-posta helbidera mezu bat bidaltzea (honako informazio hau jakinarazi behar litzateke: izen-abizenak, helbidea, adina, telefono zenbakia eta *zer behar dut? / zer eskaini dezaket?* galderari erantzuna). Gainera, Oñatiko Udalak jakinarazi gura du hasia dela 70 urtetik gorako herritarrei deika, euren egoera zein den ezagutzeko eta laguntza beharrik duten galdetzeko. Era berean, udalak boluntario sarea hedatzen segituko du datozen egunetan.